

NOS MUEVE
BILBAO
BAT EGINIK



JUAN MARI ABURTO RIKE
BILBOKO ALKATETZARAKO HAUTAGAIA

HAUTESKUNDE PROGRAMA
BILBO 2019-2023

EAJ-PNV.EUS



juanmariaburto.eus



ejaj
pnv

8. AUZOEN GARAPENA

Hirigintza nahiz gizartearen ikuspegitik Bilbo hiri kohesionatua izatea da gure helburua, eta horretarako, lanean jarraituko dugu, **auzo guztietan etorkizuneko proiektuak dituen eta aurrerantz doan hiri erakargarri honetako protagonistak direla** senti dezaten.

Bilbok egundoko aurrerakada egin du azken urteotan, hiri-eraldaketa orekatu eta berritzailearen erreferente bihurtu arte. Arrakasta hori, hein handi batean, eraberritzea eta birgaikuntza hiriko auzo guztietara eramán izanak eragin du, kasu askotan 60ko eta 79eko hirigintza kaskarrak sorrarazitako arazoak konpontzeko. Atal honetan, Otxarkoagan eta Arangoitin egindako hobekuntza urbanistikoak aipa daitezke, baita Bilbo Zaharreko eta Miribillako garapena eta Atxuriko mendi-magaleko eta Enkarnazioko urbanizazioa ere, besteak beste.

Baina beste pauso bat eman behar dugu hiriko auzoen etengabeko hobekuntzarako, irisgarritasunaren arazoak konponduz, kaleak atseginak neginez oinezkoen joan-etorrietarako, hiriko berdeguneak bultzatuz... Hau da, gure auzoetako bizi-kalitatea hobetuz eta auzokideek nahiz merkatariek egindako eskariei erantzunez.

Bilbo oinez zeharka daitekeen hiri konpaktua dela aprobetxatuz, oinezko ibilbideen hobekuntza da gaurgeroko asmoen artean gauzatuko ditugun lan-ildoetako bat, hurbiltasuneko merkataritzarako aukera-esparruak izan daitezen, eta horrekin batera, beste administrazio batzuekin modu koordinatuan lan egiten jarraituko dugu hiriko garraio publikoaren eskaintza hobetzen jarraitzeko, bereziki hegoaldeko auzoetan.

Bestalde, **hiriko berdeguneak eta egonlekuak hobetzeko** lan egingo dugu, parkeak dinamizatuz eta **umeentzako jolasguneetako instalazioak** hobetuz, kirol jarduna sustatuz eta eremu horietarako aisia eta kultur jarduerak sortuz. Ildo honetan, umeentzako jolasgune estaliak eraikitzen jarraituko dugu, euria egiten duenean ere aisialdirako eremu horietaz gozatzeko aukera izan dezaten.

Auzoetako irisgarritasunaren hobekuntza ere ekintza-ildo garrantzitsua da, eta aurrera jarraituko dugu hiriko kaleetan dauden oztopo arkitektonikoak kentzeko eta hiriko goiko auzoetarako igogailu proiektu berriak garatzeko.

Etxebizitzak zaharberritzeko laguntza-programarekin jarraituko dugu hiri osoan, egoera sozial ahulenei arreta berezia emanez.

8. AUZOEN GARAPENA

8.1- AUZOEN GARAPENA. AUZO GUZTIETARAKO JARDUERAK

HELBURUA

Hiriko auzo guztiak modu kohesionatuan eta orekatuan garatzea, hiri-gintzaren zein ekonomia eta gizartearen ikuspegitik, arreta berezia behar duten auzoetan ahalegin berezia eginez.

NEURRIAK

1. “Irisgarritasun Planarekin” jarraitzea barruti guztietan.
2. “Hiriko Bizikleta-Sarea” eta bizikletak maileguan uzteko “BilbaoBizi Zerbitzua” handitzea.
3. WIFI sarea barruti guztietan zabaltzen jarraitzea.
4. Hurbiltasunezko merkataritza bultzatzea.
5. TAO eremu berriei buruzko azterlana eta herritarrekiko kontsulta, eta egokitzeak joz gero, horiek handitzea.
6. Auzoetako kultura, kirol eta aisialdi jarduerak nahiz jarduera osasungarriak bultzatzea.
7. Auzoetan gertuko Udaltzaingo komunitarioa garatzea.
8. Umeentzako jolasgune estalien kopurua handitzea.
9. Galtzadetako mantentze-lanak gauzatzeko eta espaloiak beharrezko Planarekin jarraitzea.
10. Auzoetako argiztapenaren hobekuntzarekin jarraitzea.

NOS MUEVE
BILBAO
BAT EGINIK